

PROBLEMAK 7

- GKE batek erabilitako jostailuak bildu ditu. Urtarrilean 845 bildu zituen; otsailean, 1.753; eta martxoan, 2.784. Zenbat jostailu bildu ditu guztira?

GKE=ONG

jostailu bildu ditu.

- Xabierrek 28 urte ditu, eta Leirek, berriz, Xabierrek baino 15 urte gehiago. Zenbat urte ditu Leirek?

urte ditu Leirek.

- Tren batean 56 lagun zihoazen Ibarberdera iritsi zenean. Ibarberden, 27 lagun jaitسي egin ziren, eta 35 igo. Zenbat lagun doaz trenean Ibarberdetik aurrera?

lagun doaz trenean Ibarberdetik aurrera.

- Astelehenean 125 lagunek eman zuten izena ibilaldi baterako; asteartean, 196k; eta asteazkenean, 275ek. Zenbatek eman dute izena guztira?

pertsonak eman dute izena.

- Saioak 350 € zituen aurreratuta, eta 75 € kobratu ditu lan baten truke. Gaur, 225 €-ko faktura bat ordaindu du. Zenbat diru dauka horren ondoren?

€ dauka horren ondoren.

PROBLEMAK 8

- Igor biologoa da eta, hil honetan, 635 hegaztiri jarri die eraztuna. Hegazti horietatik, 307 emeak ziren. Zenbat hegazti arri jarri die eraztuna Igorrek?

hegazti arri jarri die eraztuna.

- Alkate batek herriko basoan 2.890 pinu landatzea erabaki du, baina momentuz 1.570 pinu soilik landatu dituzte. Zenbat pinu falta dira landatzeko?

€ gastatu dute desfilean.

- Bizilagunen elkarte batek errege-opil handi-handi bat egin zuen Gabonetan, festa baterako. Elkarteak 850 € bildu zituen herrian, festa antolatzeko. 295 € osagaiak erosteko erabili zituzten, eta 385 €, festarako lokala alokatzeko. Zenbat diru geratu zitzaion elkarteari festa egin ondoren?

€ geratu zitzaion elkarteari festa egin ondoren.

- Argiaren herrian, 3.500€ dituzte gabonetako argiak erosteko. Baina azkenean, 2.750€ soilik gastatu dituzte argitan. Sobera geratu dena eta beste 4.950€ Hiru erregeen desfilea antolatzeko erabili dituzte. Zenbat diru gastatu dute Hiru erregeen desfilean?

€ gastatu dituzte desfilean.